

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**



IZENBURUA:

Euskararen Osasuna ehun urte eta gero

EGILEA:

Mikel Erbiti

DATA:

2020/04/16



Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Osasuna Klubaren sorrera.....	3
3. Estatutuen aldaketa: Osasuna euskaraz ere.....	6
4. Elebitasunerako bide malkartsua.....	8
5. Erronkak.....	12
6. Osasunaren garrantzia euskararen normalizazioan.....	13
7. Eranskinak.....	16



1. Sarrera

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiot UdalTop-en antolatzaileei, aurtengo edizioan parte hartzeko aukera eman didatelako. Eskerrak nire izenean eta baita Osasunaren izenean ere. Nahiago nuke hau dena parte hartzaileei zuzenean esateko aukera izan banu. Koronabirusaren krisia dela eta, ez da posible izan. Lerro hauen bitartez saiatuko naiz esan beharrekoa ahalik eta txukunen islatzen.

Gurea ehun urte betetzear den kluba da. Euskal izena duena, baina orain arte gaztelania hutsean aritu dena. Zorionez, Osasunaren ere egoera aldatzen hasia da. Duela hiru urte estatutuak aldatu zirenetik, Iruñeko kluba euskara erabiltzen hasia da barne zein kanpoko komunikazioan: ariguneak sortu nahian gabiltza. Horren berri ematea da artikuluaren helburu nagusia.

Aurtengo udazkenean bi ospakizun garrantzitsu izanen ditugu. Euskaraldia eta Osasunaren mendeurrena. Lehenbizikoa oso arrakastatsua izatea nahi nuke. Bigarrenari dagokionez, euskaraz ere ospatuko delakoan nago. Duela hiru urte hasitako bideak fruitu batzuk eman ditu. Etorkizunean askoz gehiago emanen ahal ditu!

2. Osasuna Klubaren sorrera

C. A. Osasuna taldea 1920. urtean sortu zen, Iruñean. Horretaz zalantzak izan badira ere, taldea urriaren 24an sortu zela ematen du. Ordurako futbola sartua zegoen hirian, baziren horretan aritzen ziren talde batzuk. Kontua da talde haiek desagertu egin zirela. Iruindar gazte batzuek, ordea, futboleant segitu nahi omen zuten. Ez zuten sortu berria zen kirola Iruñean desagertzetik nahi.

Horretarako, kirol talde batzuetako kideek Sportiva elkarteak sortu zuten. Gazte haiek diru bilketa egin zuten, baloi bat eta jantziak erosteko. Helburua, garai hartako militarren taldeen aurka aritzea zen, Ilargi Erdiaren parkean jokatzen ziren partidetan.



Sportiva Elkartean barne tirabirak izan ziren. Horren ondorioz, taldea zatitu eta New Club izeneko elkarte berria sortu zen. Bi kirol taldeek batzorde bana sortu zuten, bietatik klub bakarra sortzeko asmoz. Sportiva Elkarteko ordezkariak Eduardo Aizpun, Francisco Altadill eta Gerardo Arteaga izan ziren; New Clubekoak, berriz, Joaquin Rasero, Augusto Vizcarra eta Angel Goikoetxea.

Asmoak aurrera egin zuen, zailtasun handirik gabe. Azkenean, bi taldeetako kideak Iruñeko Kafe Kutz tabernan elkartu eta klub berria sortzeko proposamenari baiezkkoa eman zioten.

2.1. Euskal izena

Talde berriari Osasuna izena ematea lehen bilera hartan erabaki zen. Izenaren proposamena Benjamin Andoain Martinezek egin omen zuen.¹ Hark izena izanari ongi loturik zegoela azpimarratu omen zuen, euskal izenaren esanahia oso egokia baitzen futbol taldearentzat: izenak indarra, bizkortasuna islatzen zuen. Hori bezalakorik ez, beraz, iruinxeme gazte gogotsu haiek sortu nahi zuten taldea bataiatzeko.

Proposamena bozketara eraman eta gehienek baiezkkoa eman zioten euskal izenari.

Aipatzekoa da, futbola Ingalaterratik zetorren kirol izanik, ohikoa zela gurean sortzen ziren taldeei ingelesezko izena paratzea. Iruñeko New club edo Athletic bera horren lekuko.

2.2. Garai hartako euskararen aldeko mugimendua

Dena den, ez da harrizkoa futbol taldeak euskal izena hartu izana. Izan ere, garai hartan Nafarroan euskararen aldeko mugimendua indarra hartzen ari zen. Aipatzekoa da, esaterako, 1918an Eusko Ikaskuntza sortua zela, Nafarroako Diputazioak eta Hego Euskal Herriko beste hiru lurraldeek bultzatuta. Handik urte betera, lau Diputazioek Euskaltzaindia sortzeko erabakia hartu zuten.

¹ Horretaz ere zalantzak izan dira. Beste batzuek izena Eladio Cilvetik proposatu zuela esaten dute.



Azpirarratzekoa da garai hartako Iruñean oso ohikoa zela denda, elkarte, peña, lagun talde eta abarrak euskal izenez batailatzea. Euskaltzaletasunaren loraldiaren lekuko dira Osasuna sortu eta handik gutxira martxan jarritako beste ekimen batzuk ere. Bat aipatzeagatik, 1925ean Iruñean bertan, Euskeraren Adiskideak Elkarte eratu zen. Garai hartako iruinxeme ezagunek bultzatuta sortu zen: Bernardino Tirapu medikua, Alberto Huarte musikaria, Javier Ciga margolaria... Elkarte hori Euskara Nafarroako hiriburuan indartzeko helburuarekin sortu zuten. Era askotako ekimenak antolatu zituzten, horien artean Euskararen Eguna, literatur lehiaketak edo musika eta dantza ikuskizunak.

Euskeraren adiskideak taldeak berak bultzatuta sortu zen Iruñean gerra aitzineko lehen ikastola (Garai hartan *Euskal Eskola* deitua). 1931n gertatu zen hori, eta eskolak 1936ra arte iraun zuen.²

Honekin guztiarekin hauxe esan nahi dugu: Osasuna sortu zen garaian euskarak eta euskal kulturak nolabaiteko loraldia bizi zuten Nafarroan eta, bereziki, Iruñean. Euskaltzaletasuna berpizten ari zen eta, gainera, Iruñeko itzal handiko jendearen hautua zen hori. Euskararen aldeko giroak, beraz, eragina izan zuen futbol talde berriaren sorreran. Euskal Herriko beste futbol talde askok gaztelaniaren edo ingelesaren aldeko apustua egin zuten taldeei izena ematean. Iruñean, ordea, euskara lehenetsi zuten.

Dena den, gauza bat da izena eta bestea izana. Eta aitortzen hasita, argi esan beharko dugu: euskal izendun taldean gaztelania izan da jaun eta jabe ehun urteko ibilbidean. Orain dela gutxi hasi gara izena eta izana lotzen. Historian lehen aldiz, orain Osasunak euskaraz ere egiten du.

²Iruñean ez ezik, Lizarran eta Elizondon ere euskal eskolak martxan jarri ziren gerra aitzineko urteetan. Lizarrakoa 1933an, Elizondokoa 1936an. Zer esanik ez dago: 1936ko altxamenduak hirurak desagerrarazi zituen. Euskararen aldeko gainerako ekimenak ere errotik moztu zituen.



3. Estatutuen aldaketa: Osasuna euskaraz ere

Osasuna lehen dibisioan klub izaera duten talde bakarrenetakoa da. Jakina denez, 90eko hamarkadan gehienak Kirol Sozietate Anonimo bihurtu ziren. Iruñeko taldeak, berriz, betiko izaera juridikoari eutsi zion.³ Gainerako taldeak akziodunen eskuetan dauden bitartean, bazkideak dira Osasunaren jabeak. Beraz, haiei dagokie erabakiak hartzea.

Dena den, hori ez dute zuzenean egiten, konpromisarioen bidez baizik. Lau urtean behin, hauteskundeak egiten dira Osasunako konpromisarioak aukeratzeko. Hauteskunde horietan nahi duenak izena eman dezake ordezkari bihurtzeko, eta bazkide guztiek dute botoa emateko eskubidea. Modu horretan, bazkideek aukeratzen dituzte euren ordezkariak.

Konpromisarioek batzar guztietan parte har dezakete: batzar arruntetan zein ezohikoetan. Klubak hartzen dituen erabaki nagusienetarako ordezkarien gehiengoaren oniritzia behar da.

Holako entitateetan gertatzen den bezala, Osasunaren ere estatutuak dira arau nagusia, bertan jasota baitago klubaren helburu, funtzionamendu, arau eta gainerakoak. Klubaren historian estatutuak behin baino gehiagotan aldatu dira, betiere konpromisarioen batzarrak onartuta.

2017ko martxoaren 23an Osasunako Konpromisarioen Batzarrak onarturiko estatutuen aldaketa funtsezkoa izan da klubean euskara indartzeko. Bazkide talde batek Osasuna euskaraz ere aritzea proposatu zuen, ordura arteko elebakartasuna (gaztelania hutsean) elebitasun bihurtzea, euskarak merezi zuen tokia izan zezan. Talde horrek, zehazki, estatutuen 5. artikuluan euskarari aipamena egiteko eskatu zuen. Euskara Nafarroako hizkuntza izanik, klubak horixe onartzea zen helburua. Hori onartu eta, jakina, euskara klubaren hizkuntza bihurtzea. Bileran gehiengoak (%86) baiezkoa eman zion proposamenari (252 baiezko, 33 ezezko eta 7 abstentzio). Horri esker, hasi gabeko bidean abiatzeko aukera zegoen.

³ Athletic Club de Bilbao, F.C. Barcelona eta Real Madrid C.F. dira klub izaerari eutsi dioten lehen dibisioko beste hiru taldeak.



Izan ere, klubak ordura arte euskaraz eginikoa hutsaren hurrengoa zen. Web orrian gaztelaniaz argitaratzen zen informazioa euskaraz ere ematen zen. Kontua da, Osasunatik kanpoko itzultzaile batek egiten zuela hori, noizean behin. Web orriak gaztelaniaz eskaintzen zuen gaurkotasuna, beraz, ez zegoen euskaraz bermatua. Gainera, ez zuen ikusgarritasun handirik, irakurtzeko webgunean sartu beharra zegoelako. Gaztelaniazko informazioa, ordea, sare sozialetan argitaratzen zen, ikusgarritasun handiarekin, eta esteka baten bidez irakurlea webgunera helbideratzen zuen.

Beraz eta laburbilduz: Osasunak euskaraz egiten zuena web orrira mugatzen zen, eta hor ere euskara ez zegoen gaztelaniaren maila berean.

3.1. Konpromisarioen batzarrak hartutako neurria

Esan bezala, konpromisario talde batek egoera hori hobetu nahi zuen, estatutuen bosgarren kapituluaren aldaketa eginez. Bertan esandakoaren arabera, euskara eta gaztelania dira klubaren berezko hizkuntzak. Horren ondorioz, Osasunak elebitasuna bultzatu behar duela azpimarratzen da. Kirol zein arlo sozialean elebitasuna sustatu beharko duela aipatzen du bosgarren artikuluko e) puntuak.

5. artikulua. Xedeak eta helburu soziala.

e) OSASUNAREN berezko hizkuntzak euskara eta gaztelania dira, eta, hortaz, biak erabiliko dira Klubaren jardura guztietan, barne- zein kanpo-komunikazioetan...

Gainera, elebitasuna bultzatuko du. Langileren batek euskara ikasteko eskaera egingo balu, OSASUNAK ikasketa hori lagundu beharko du, langile horri eskolak ordainduta.

Gisa berean, bi hizkuntzen ezagutza kontuan hartuko da Klubeko langileak kontratatzerakoan, kirol-arloko langileak eta lehen zein bigarren taldeko jokalaria salbuetsita. Laburbilduta, elebitasuna sustatuko da norbanako- zein kirol-arloan.

Azkenik, komunikazio-zerbitzuak euskararen erabilera sustatuko du Klubaren ekitaldi sozial, instituzional nahiz kirol-esparrukoetan.



4. Elebitasunerako bide malkartsua

Esatetik egitera jauzi handia dagoela esan ohi da. Hori bera gertatu zen Osasunan euskararen normalizazioarekin. Estatutuak aldatu ondoren, neurri zehatzak hartzeko unea iritsi zen. Hala ere, neurri horiek bazkide batzuek nahi baino gehiago atzeratu ziren. 2017ko urriko Batzarrean kexatu ziren, estatutuak ez zirela betetzen ari argudiatuz. Zuzendaritza taldeak, horri erantzunez, gaian lanean ari zela erantzun zien. Handik lau hilabetera hasi zen nabaritzen estrategia aldaketa.

4.1. Kazetari berria, sare sozialak eta itzulpengintza

Zuzendaritza Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzarekin hitzarmena negoziatzen ari zen. Hauek kazetari bat kontratatzea merkeagoa eta eraginkorragoa zela gomendatu zioten. Klubak baiezkoa eman zuen. Osasunaren lehen erabakia kazetari euskaldun bat hartzea izan zen. Komunikazio departamentuan lau lagun ari ziren ordura arte, erdaldunak denak. Taldeari, beraz, kazetari euskalduna batu zitzaion, txosten hau idatzi duen pertsona bera, hain zuzen ere. Hortik aurrera, haren esku gelditu zen klubean euskaraz egin beharrekoa.

Estrategia aldaketa nabarmena zen. Helburua ez zen gaztelaniaz egiten ziren albiste batzuk euskaraz ere ematea, euskaraz informatzea baizik. Beraz, kazetari euskaldunak horixe zuen zeregin nagusi: albisteak euskaraz sortu, web orrian informazioa bi hizkuntzetan aldi berean ematen zela bermatu, sare sozialak euskaldundu, klubaren aldizkarian euskarazko testuak idatzi...

2018ko otsailaren 26an, klubak sare sozial berriak argitaratu zituen euskara hutsean. Erabaki horrek bi norabideko komunikazioan eragin nahi zuen. Alde batetik, barrutik kanporakoa, klubak argitaratzen zuen guztia euskaraz emanek. Eta, bestetik, bazkideekiko arreta zerbitzua. Hortik aurrera, klubarekin harremanetan jarri nahi diren bazkide guztiek euskaraz egiteko aukera izan dute. Arigune digitala sortu dugu.

Horrez gain, euskara gehiago agertzen hasi zen klubaren egunerokotasunean. Gorritxo guztiak biltzen dituen estadioan, Sadarren, izen eta kartel guztiak euskaratu ziren:



Prentsa-aretoan, eremu mistoan, aldageletan... Euskararen normalizazioan beste pauso txiki bat.

Ekitaldi guztietan agertzen diren izenak, izenburuak eta testuak ere euskaraz daude. Beraz, bazkideek ere klubarekiko duten harremanetan euskararen agerpen hori nabaritu dute. Halaber, bazkide eta jarraitzaile guztiei bidaltzen zaizkien komunikazioak bi hizkuntzetan bidaltzen dira: Newsletterrak, Batzarrerako deialdia, Batzarreko gairerrenda... Prozesu honen hasieran, Komunikazio Departamentuak aurrera pauso bat eman eta informazioa euskaraz jasotzeko aukera eskaini zuen. Horretarako, bazkideek mezua jasotzean “Euskaraz jaso nahi dut” aukera sakatu eta automatikoki beste zerrenda batean sartzen dira. Klubak bi zerrenda ditu: Bazkideak Euskaraz eta Bazkideak Gaztelaniaz. Orain arte 50 bazkidek eskatu dute informazioa euskaraz jasotzea, baina argi dago hori ez dela Osasunak bere bazkideen artean duen euskaldun kopurua. Beraz, zenbatekoa handitzeko aukera dago oraindik.

Klubak astero aldizkari bat bidaltzen die bere bazkide eta jarraitzaileei. Prozesu honi hasiera eman aurretik, aldizkaria gaztelaniaz idatzita zegoen, eta soilik sekzioren bat euskaraz ere.

Ondorengo urratsa hau izan zen: aldizkarian gutxinaka euskarazko edukiak sartzen hastea.

Editoriala astero euskaratzen hasi zen, baina departamentuak ondorengo erabakia hartu zuen: bazkide euskaldunek eduki eskusiboa jaso behar zuten. Horregatik, atal berri bat sortu zen euskaraz idatzitako elkarrizketa, erreportaje eta albistekin. Atal horri “Kolore Gorri” izena jarri zitzaion.

4.2. Eskariaren garrantzia

Eskaintza eta eskaria, horra hor euskararen aldeko estrategian kontuan hartzeko bi kontzeptu. Batzuetan, enpresa edo entitate bateko buruek euskararen aldeko pausoak



emanen dituzte besterik gabe, nahi dutelako. Beste askotan, ordea, euskaldunek eginiko eskaerari erantzunez egingen dute.

Bazkideen eskaerak garrantzi handikoak dira klubeko agintarientzat. Batzuek aldizkaria euskaraz eskatzen duten bezala, funtsezkoa da beste arlo batzuetan ere hori bera gertatzea. Hona hemen hori ongi irudika dezakeen adibidea: Osasuna futbol eskolak antolatzen ditu Nafarroa osoan eta herri bakoitzera futbol irakasle talde bat bidaltzen du, bertako gaztetxoekin aritzeko. Herri zehatz bateko gurasoek campusa euskaraz izatea eskatzen badute, klubak entrenatzaile euskaldunak bidaliko ditu. Kasu honetan, guraso batzuen eskaerak eragin du aldaketa eta euskararen aldeko erabakia.

Gaur bizi dugun egoera larria iritsi aurretik, Aste Santuan Iruñeko campusetan talde mistoak lantzeko ahalegina egiteko asmoa zegoen. Hau da, talde berean euskaraz zein gaztelaniaz normaltasunez aritzeko taldeak.

Beraz, bazkideen eskaerak ere kontuan hartzekoak dira eta normalizazio prozesu honetan aurrera egiteko beharrezkoak.

4.3. Protagonistak, euskaldunak

Klubean euskararen normalizazioak aldeko puntu erabakigarria izan zuen lanean hasi eta hilabete batzuetara. Osasunak Jagoba Arrasate hartu zuen entrenatzaile. Berriatukoarekin batera Bittor Alkiza ere heldu zen Iruñera. Lehen eta bigarren entrenatzailea, beraz, euskaldunak eta euskaltzaleak. Bikotea klubera iritsi aurretik taldean baziren euskaldun batzuk, bai jokalarien artean zein langileen artean. Urtean zehar egiten diren futbol eskoletan ere euskarak aurrera egin zuen. Bertan ariguneak bermatu ziren. Baina, dudarik gabe, euskararen alde pausoak ematen ari ziren garaian entrenatzailea eta haren laguntzailea euskaldunak izateak gure alde jokatzeko zuten. Futbol talde batean entrenatzailea izaten da erreferentzia nagusia, komunikabideetan gehien agertzen zena. Arrasate entrenatzailea izanik, prentsaurrekoak, elkarrizketak-eta euskaraz egiteko aukera zegoen.



Esan bezala, entrenatzaileak ez ezik taldeko beste batzuk ere euskal hiztunak dira. Jokalarien artean, Oier Sanjurjo kapitaina, Unai Garcia, Jon Moncayola, Endika Irigoien... Lehen eta bigarren entrenatzaileez gain, Richard Sanzol atezainen entrenatzailea, Iñaki Ibañez delegatua, Asier Urkia eta Borja Oreja fisioterapeutak, Ruben Berrogi *scouterra*... Honek lehen taldean euskaraz egitea bermatu zuen, talde teknikoaren bulegoan arigunea sortzeko aukera aztertzen ari gara.

Osasunako beste taldeetan ere ez da euskaldunik falta. Nesken Osasuna taldean, adibidez, Mikel Bakaikoa entrenatzailea eta Maite Garde kapitaina ere euskaldunak dira. Hau guztiak, jakina, oso lagungarria da barruan euskaraz lan egiteko eta kanpotik jasotzen den irudia ere euskalduntzeko.

Horren adibide garbia: Lehen Mailarako igoera lortu ondorengo ospakizunak. Horietan, lehen taldeko jokalaria eta entrenatzaileek mikrofonoa hartu eta leporaino beteta zeuden Gaztelu eta Udaletxe Plazetan hitz egin zuten. Azpimarratzekoa da Jagoba Arrasatek eta Oier kapitainak ez ezik, kanpotik etorritako jokalaria batzuek ere euskaraz hitzen bat bota zutela. Aipatu beharra dago, kanpotik etorritako jokalaria batzuek euskara ikasten aritu zirela Klubeko beste langile batzuekin batera. Nire ustez, kontu sinbolikoa ez da huskeria bat. Izan ere, horrek zerbait erakusten digu: Iruñera heldu berri diren jokalaria euskara Osasunaren eta bere zale askoren hizkuntza ere dela ohartu dira.

4.4. Kanpoko laguntza

Euskara normalizatu nahi duen edozein entitatek baliabideak behar ditu, barnekoak edo kanpokoak. Osasunari dagokionez, komunikazioan ari direnen artean bakarra da euskalduna. Taxoareko bulegoetan bakarra eta Fundazioko komertzialen artean ere euskaldun bakarra dago. Begi bistakoa da horrek mugatu egiten duela normalizazio bidean aurrera egitea. Dena den, kanpoko laguntza ere bilatu da euskararen presentzia areagotzeko. Alde horretatik, aipatzekoa da Osasunak AEK-rekin duela bi urte sinatu zuen hitzarmena. Horren bidez, AEK Osasunaren laguntzaile bihurtu da hizkuntza



kontuetan. Hitzarmenean euskara bultzatzeko plan bat dago aurreikusia, sentsibilizazio kanpainak, Ahize-AEK hizkuntza aholkularitza, Euskaratu itzulpen zerbitzua, euskaltegiak....

Beraz, barne baliabideak mugatuak direnean aterabide ona izan daiteke kanpoko adituen laguntza, kasu honetan bezala. Eskertzekoa litzateke, hala ere, hemendik aurrera, pixkanaka-pixkanaka, barneko baliabideak egokitzea euskararen aldeko estrategia behar bezala garatzeko.

Euskararen aldeko bidean oro ez da urre izan. Osasuna elebidunago agertu ahala, horren aurkako iritzi batzuk ere sumatu dira. Zorionez, ordea, ez dute gehiengoa ordezkutzen. Nire ustez, Osasunako bazkide eta jarraitzaile gehienek bat egiten dute orain arte egindakoarekin. Osasunak euskaraz ere egitea nahi dute.

5. Erronkak

Bi urte bete dira Osasuna euskararen aldeko apustua hasi zenetik. Bidea urratzen eta oinarriak finkatzen hasi gara. Eta balantzea ez dago gaizki. Datozen urteotarako xede nagusia da oinarri horiek sendotzea eta aurrerago egitea, ahal dugun neurrian. Bazkideei arreta euskaraz bermatzea, arigune bat sortuz. Online aritzen diren bazkideek bermatuta dute jada. Barneko ohar eta informazio guztiak ere euskaraz ematen dira, karteldegia aldatu da euskaraz ere emateko. Kanpora ateratzen diren iragarpenak ere euskaraz agertzen dira. Horiek dira, besteak beste, bi urteotan eginiko aurrera pausoak.

Badira, noski, hobetu beharreko kontuak baina agian aurrerago joateko baliabide handiagoak beharko genituzke.

Erronka zehatzei dagokienez, honakoak aipa daitezke:



- **Mendeurrena:** Aurtengo urrian Osasunak ehun urte beteko ditu. Klubaren helburua zen egitarau zabala prestatzea mendeurrena behar bezala ospatzeko. Oraingo egoera kontuan hartuta, zaila da jakitea zer gertatuko den. Hala ere, noizbait eginen da ospakizuna, eta horretan ere bada zer eginik euskarari dagokionez. Dударик gabe, ospakizunak oihartzun handia izanen du Nafarroan eta hemendik kanpo ere. Beraz, aukera paregabea Osasunak euskaraz ere egiten duela frogatzeko.
- **Estadio berria:** Sadar futbol zelaia berritzen ari da. Beraz, aurten ez bada, datorren urtean futbol zelai berria estreinatuko dugu. Horrek erronka bikoitza dakarkigu: batetik, barneko kartelak-eta euskaraz ere idaztea. Eta bestetik, estadio berriaren inaugurazio ekitaldian euskarari merezi duen protagonismoa ematea.
- **Fundazioa:** Osasuna Fundazioak ahuldade handia du euskara arloan. Fundazioaren barruan ez dago komunikazio arduradun euskaldunik, eta horrek eguneroko lanak zaildu egiten ditu. AEK-rekin sinatutako hitzarmenak kanpora bidaltzen diren informazioak euskaratzea lortu zuen, baina hortik aurrera ez dago hizkuntza indartzeko modurik. Nire ustetan, Fundazioak euskal hiztunen beharko luke euskara indartzeko, batez ere Fundazioak kanpora begira duen garrantzi kontuan hartuz.

6. Osasunaren garrantzia euskararen normalizazioan

Azken urteotan, Osasunak pauso batzuk egin ditu euskarari merezi duen tokia emateko (eranskinean Osasunaren datuak). Ibilbide hori, dudarik gabe, ikuspegi orokorrago baten barnean ikus daiteke.

Euskararen normalizaziorako arlo publikoak ez ezik, pribatuak ere garrantzi handia dauka. Eta horren barruan, bereziki, gizartean eragin handia duten entitateen euskararekiko jokamoldea.



6.1. Euskararen ikusgarritasuna

Gauza jakina da Nafarroa anitza dela. Are gehiago, oso gutxi direla nafar guztiok batzen gaituzten kontuak. Horietako bat, dudarik gabe, Osasuna da. Iruñeko futbol taldea itzal handiko entitatea da, ezagun eta ospetsua Aranotik Corteseraino, Vianatik Zangotzaraino. Ideologia bateko eta bestekoek dute gustuko. Zahar eta gazteek. Euskaldun eta erdaldunek. Langile eta enpresariak. Osasunaren garaipenek guztiak alaitzen dituzte. Haren porrotek, berriz, guztiak ilundu.

Osasunak egiten duen guztiari lupaz begiraten zaio. Zeresanik ez dago: komunikabideetan beste inork ez du Osasunak adina informazio sortzen. Honek argi erakusten digu hizkuntza arloan ere funtsezkoa dela Osasunaren jokamoldea. Alegia, Osasunak euskararen alde egiten badu, horrek mesede oso handia egin diezaioke hizkuntzaren normalizazioari. Aurrera pauso azkarra izan daiteke.

6.2. Osasuna eta entzierroa

Osasuna da nafar guztiok batzen gaituen sinbolo bakarrenetakoa. Hemendik kanpo ere, talde gorritxoak ordezkatzeko gaitu. Horretan Osasuna eta entzierroa pareka daitezke, biak ala biak lurralde honen sinbolo baitira. Biek oihartzun izugarri handia dute komunikabideetan. Horren guztiaren ondorioa garbia da: hizkuntzak ere funtsezko partida jokatzen du bertan.

Gogora dezagun euskarak entzierroan argi jokatu eta ederki irabazi zuen partida bat. Istoria hauxe da: 2008ko neguan, Santo Domingo Aldapako lasterkari euskaltzale batzuk elkartu eta entzierroa hasi aurreko kantua (A San Fermín pedimos/por ser nuestro patrón/nos guíe en el encierro/dándonos tu bendición) euskaraz ere kantatu beharra zegoela erabaki zuten. Itzultzaile batekin harremanetan jarri eta hark lan txukuna egin zuen:

*Entzun arren San Fermín
zu zaitugu patro
zuzendu gure oinak
entzierro hontan otoi*



Esan eta egin. 2009ko uztailaren 7an, historian lehen aldiz, santuari babeska eskatzeko abesten den kantua euskaraz ere egin zen. Geroztik beti egin da horrela, egunean hiru aldiz. Inguruan dauden ikusleak dira horren lekuko. Baina, batez ere, entzierroa telebistan ikusten duten guztiei mezu bat bidaltzen zaie: Iruñea euskalduna da. Kontuan hartzekoa da estatuan milioi bat lagunek ikusten dutela entzierroa telebistan, eta beste asko eta asko munduko bazter guztietan. Publizitateari dagokionez, nekez irudika liteke euskararen aldeko garaipen hoberik.

Esan bezala, Iruñeak bi sinbolo nagusi baditu, biztanleria osoak onartuak: Osasuna eta entzierroa. Elkarri lotuta daude, izugarrizko indarra dutelako, hirian eta hiritik kanpo. Biek ordezkutzen gaituzte munduan. Eta beraz, bietan euskarak aitzina egiteak sekulako garrantzia eta eragina dauka.

Entzierroan garaipen garbia lortu da. Osasunak ere irabaziko ahal du duela bi urte hasitako partida!



7. Eranskinak

1. ERANSKINA. OSASUNAREN ZENBAKIAK

- **Bazkideak:** 15.437
- **Jokalari profesionalak eta kirol arloaren barruan dauden teknikariak:** 67 jokalari eta tekniko. Lehen taldekoak 25 eta Promesas eta oinarrizko taldeetakoak 42
- **Hitzartutako Klubak:** 136 talde
- **Futbol eskola eta Campusetan aritzen diren haur eta gazteak:** 1.447 ikasle

Futbol eskolak: 1.445 parte-hartzaile, 52 egoitzan. Euskaraz ari diren egoitzak: Etxarri-Aranatz, Leitza, Lakuntza, Altsasu, Arantza, Doneztebe, Ultzama eta Goizueta. Guztira, 4 eta 12 urte arteko 174 hurrek parte hartu dute euskaraz.

Herri horietaz gain, Etxalar, Zelandi, Paz de Ziganda, San Fermin eta Hegoalde ikastetxe eta ikastolak. Guztira 95 parte hartzaile.

Udako Campusa: 1.113 parte hartzaile, 23 Campus eta 12 egoitza. 3 egoitzatan euskaraz aritu ziren: Etxarri Aranaz, Doneztebe eta Altsasu. 127 parte hartzaile.

Aste Santuko eta Gabonetako Campusak: 220 parte hartzaile. Astea Santuan 162 eta Gabonetan 58. Talde mistoak, gaztelania eta euskara.
- **Fundazioa babesten duten enpresak:** 300 inguru
- **Administrazioak:** Nafarroako Gobernua, Iruñeko Udala eta beste 61 udal



2. ERANSKINA. GAITASUN MAPA

Honako hau da Osasunaren gutxi gorabeherako gaitasun mapa:

Arloa	Kluba / Fundazioa	Pertsonak (gutxi gorabehera)	Langileek euskara jakin	Euskara ikasten	Arduradunak euskara jakin
ZUZENDARITZA BATZORDEA	Kluba	5	0	0	Ez
ZUZENDARITZA OROKORRA	Kluba	1	0	1	Ez
KUDEATZAILETZA	Kluba	1	0	0	Ez
BAZKIDEAREN DEFENDATZAILE	Kluba	1 (boluntario)	0	0	Ez
PROTOKOLOA	Kluba	1	0	0	Ez
ADMINISTRAZIOA - SADAR	Kluba	4	0	1	Ez
ADMINISTRAZIOA - TAXOARE	Kluba	4	1	2	Ez
ADMINISTRAZIOA - FUNDAZIOA	Fundazioa	31	0	5	Ez
KOMUNIKAZIOA	Kluba	6	1	0	Ez
GIZARTE-EKINTZA	Fundazioa	80	20	2	Ez
SEGURTASUNA	Kluba	1	0	0	Ez
MARKETINA	Fundazioa	5	1	2	Ez
KIROL EGITURA	Kluba	67	10	5	Ez
MANTENTZE LANAK	Kluba	10	1	0	Bai



3. ERANSKINA. JARDUERAK ETA OSAGAI LINGUISTIKOEN EGOERA

Jarraian zerrendatu ditugu C.A. Osasunak urtero errepikatzen dituen jarduerak eta horiei lotutako idatzizko eta ahozko osagaien egungo egoera edo hemendik gutxira izango dutena (Sadar futbol zelaiko lanak amaitzen direnean). Laburbilduz hau da emaitza orokorra:

	Dena gaztelaniaz ■	Dena gaztelaniaz eta zati bat euskaraz ■	Dena gaztelaniaz eta/edo euskaraz ■
Idatzizko osagaiak	28	18	53
Ahozko osagaiak	39	12	17

Idatzizko osagaien %53 dago gaztelaniaz eta euskaraz, egitasmoa abiatu zenenean baino 18 puntu gora egin du. Ahozko osagaien kasuan %25 egin daiteke gaztelaniaz eta euskaraz, beharraren arabera. 9 puntu gora.

Jarduerak	Idatzizko osagaiak	Ahozko osagaiak
KIROL JARDUERAK		
Sadar futbol zelaia	- Kanpoko errotuluak eta sarrerako atekak	■ - Atezainak eta segurtasuna
	- Barruko guneetako errotuluak	
	- Fundazioaren errotulazioa	
	- Bideo-markatzailea	■ - Speakerra
	- Sarrera txartelak	■ - Leihatiletako arreta
	- Partiden orriak	
Taxoare: Partidak eta entrenamenduak egiteko erabilera eta lagapena	- Errotulazioa	■ - Atezainak
	- Alokatzeko protokoloaren azalpena	■ - Telefono bidezko lehen arreta.
	- Ohar taulak	
	- Jokalarien eta gurasoen harrera-gida	■ - Jokalarien garraioa
	- Entrenamenduetako fitxak	■ - Entrenamenduak
	- Entrenatzaile eta jokalarien arteko WhatsApp mezuak	■ - Hitzartutako taldeetako koordinatzaileekin bilerak
	- Kirol plangintzarako tresnak	
	- Kirolarien kontratuak	
	- Jakinarazpenak jokalarien gurasoentzat	■ - Bilerak jokalarien gurasoekin
	- Datuak eskatzeko eta baimenak emateko eredia	



Jarduerak	Idatzizko osagaiak	Ahozko osagaiak	
	- Azpiegituren plana, kanpotik datozen taldeei emateko	■	
	- Mantentzeko lanen programa	■	
	- Espediente akademikoak	■	
Hitzartutako taldeak eta teknifikazioa	- Hitzartutako taldeentzako jakinarazpenak	■	- Saio teknikoak ■
	- Entrenamendu saioetako fitxak	■	- Entrenamendu saioak ■
Futbol eskolak (urte osokoak) eta Campusak (Gabonetan, Aste Santuan eta Udan)	- Kartelak	■	- Saioak eta entrenamenduak ■
	- Kirola arropetako leloak	■	- Txangoa Sadarrera (partida) ■
	- Sustapenerako euskarriak	■	- Ikasturte amaierako jaia ■
	- Diplomak euskarri didaktikoak	■	- Jokalarien bititak eta solasaldiak ■
	- Jakinarazpenak gurasoei	■	- Gurasoekin jarduerak partidetan ■
	- Inkestak	■	- Aurkezpen ekitaldiak ■
	- Izena emateko fitxa	■	- Promesas ligako partidak ■
	- Udaletxeentzako mezuak	■	- Campusetako lehiaketak ■
	- Jarduerari buruzko informazio-txostena	■	- Sadar futbol zelaia bisitatu ■
	- Sare sozialak eta prentsa oharrak	■	
	- Balioen kapitaina. Gol positiboak.	■	
	- Entrenatzaile/Hezitzaileen koadernoak eta balorazio buletinak	■	- Entrenatzaile/Hezitzaileen formazioa ■
3x3 Futbol Plaza, 3x3 Neskak eta Eskolarteko Futbol 8 txapelketa Gabonetan	- Kartelak eta bi-orrikoak	■	- Lehiaketa ■
	- Izena emateko fitxa	■	- Finala ■
	- Ikastetxeentzako jakinarazpenak	■	- Speakerra ■
	- Udaletxeentzako jakinarazpenak	■	- Sari banaketa ■
	- Jarduerari buruzko txostena	■	
	- Sare sozialak eta prentsa-oharrak	■	
KIROLAZ KANPOKO JARDUERAK			
Kluba eta Fundazioaren izenak eta sinboloak	- Klubaren izena eta armarria	■	- Ereserkia ■
	- Bazkide txartela	■	
	- Fundazioaren izena eta logoa	■	
	- Futbol zelaien izenak	■	
	- Fundazioaren baitako klubaren izenak	■	
	- Maskoten izenak	■	
	- Egutegi ofiziala	■	



Jarduerak	Idatzizko osagaiak		Ahozko osagaiak	
Paper gauzak	- Orriak, gutun-azalak, txartelak	■		
Webguneak	- C.A. Osasuna webgunea	■		
	- Osasuna Fundazioaren webgunea	■		
Sare sozialak (Twitter, Facebook, Instagram eta YouTube)	- Eguneroko berriak	■	- Bideoak: eguneroko entrenamendu eta adierazpenak	■
	- Partiden emanaldiak	■	- Bideo bereziak: ekitaldiak..	■
Prentsaurrekoak	- Prentsa-oharrak	■	- Prentsaurrekoetako adierazpenak	■
	- Kazetarientzako akreditazioak	■	- Jokalari eta Babesle berrien aurkezpenak	■
Klubaren bazkideak eta haiekiko harremanak	- Denboraldiko abonamenduak berritzeko kanpaina: Internet	■	- Denboraldiko abonamenduak berritzeko kanpaina: arreta bulegoan	■
	- Eserlekuak aukeratzeko Sadar futbol zelaiko plana	■	- Denboraldiko abonamenduak berritzeko kanpaina: arreta telefonoz	■
	- NewsLetterra astero	■	- Eserlekua aldatzeko zerbitzua	■
	- Estatutuak	■	- Abonatzeko kanpainaren bideoa	■
	- Bazkideen kudeaketarako aplikazioa	■	- Abonatzeko kanpainaren audioa	■
	- C.A. Osasunaren urteko memoria	■	- Bulegoko telefono arreta	■
	- Kexa eta iradokizunen fitxa	■		
	- Bazkidearen defendatzailearen zerbitzua: idatziz	■	- Bazkidearen defendatzailearen zerbitzua: ahoz	■
Zuzendaritza Batzordearen bilerak	- Bilera deialdiak, dokumentazioa eta aktak	■	- Bilerak	■
Bazkide konpromisarioen batzarra	- Deialdiak, dokumentazioa eta aktak	■	- Aurkezpenak eta parte hartzeak	■
Patronatuaren bilerak	- Deialdiak, dokumentazioa eta aktak	■	- Aurkezpenak eta parte hartzeak	■
Patronatuaren komitea	- Deialdiak, dokumentazioa eta aktak	■	- Aurkezpenak eta parte hartzeak	■
Fundazioaren babesleak	- Ongi etorria emateko gutuna	■	- Ekitaldia babesleekin	■
	- Babesletza berritzeko gutunak	■	- Palkora joateko gonbidapena eta Presidentearekin argazkia	■
	- Txartela	■	- Haurren argazkia jokalariekik	■
	- Opariak	■	- Jokalariekik solasaldia Taxoarren	■
	- Sustapenerako mezuak	■	- Ate-irekiak	■
	- Jardueri buruzko mezuak	■	- OsasunTxikiertzako jarduerak	■
	- Babesletzari buruzko txostena	■		■
	- Babesle kontratua	■	- Abonamenduak emateko ekitaldia	■
	- Proposamen komertzialak	■		
	- Gizarte-intereseko adierazpena	■	- Enpresen arteko elkartasun partida	■
	- Kamisetaren koadroa	■		



Jarduerak	Idatzizko osagaiak	Ahozko osagaiak
	- Sadarreko eta Taxoareko panelak eta hesiak	- Babesleentzako VIP zerbitzua
	- Urteroko oparia	- Udaletxeekin ekitaldia
	- Lehengo taldearen posterra	
	- Paper gauzak. Estilo liburua	
	- Fundazioaren urteko memoria	- Memoria banatzeko ekitaldia
	- Gabonetako festarako gonbidapena	- Gabonetako festako ekitaldiak
Osasuna Aldizkaria	- Aldizkariko artikulua	
Gela Gorritxoak	- Ikastetxeentzako gutuna	- Solasaldia jokalariek eta maskotekin
	- Material didaktikoa	
	- Irakasleentzako gida	- Ahoko jarduerak
	- Diploma	- Sari banaketa jokalariekin
Gurasoentzako eskola	- Internet bideko jarduerak	- Hitzaldiak
		- Jarduera praktikoak
Lehiaketak	- Kartelak	- Sari banaketak
	- Lehiaketetako oinarriak	- Sadar futbol zelaia bisita
Harmaila soziala	- Deialdia egiteko gutuna	
	- Izena emateko fitxa	
Zure herria Osasunarekin	- Kartela	
Boluntarioen programa	- Boluntarioen estatutua	- Harremanak: ahoz
	- Izena emateko fitxa	
	- Harremanak: idatziz	
Sadar / Taxoare bisitatu	- Izena emateko fitxa	- Aurkezpenak
Ikastetxeak, ospitaleak, egoitzak... bisitatu		- Bisitak
Oroitzapen gorritxoak		- Tailerra
Nikaragua proiektua	- Loteria	- Jasotako dirua emateko ekitaldia
Denak eta tabernak	- Kartelak eta salneurriak	- Tabernariak
	- Dendako poltsak	- Dendariak